

kutsatzen gaituzTE
 ikusezinarazten gaituzTE
 manipulatzten gaituzTE
 erasotzen gaituzTE
 erahiltzen gaituzTE

ISURI MATXISTEEI STOP



Hedabideek eragina dute eta pentsaera ere sortzen dute. Frogatuta dago prentsak zein telebistak barreiatzen dituzten emakumeen irudiak erabat matxistak direla askotan. Profesionaltasun, duintasun, aniztasun, indar, autonomia eta abarrekin zerikusirik ez duten eginkizunetan erakusten dituzte emakumeak. Jendartera iristen diren etengabeko berri matxistek pentsaera hau ohiko bihurtzen dute, berau normalizat hartuz, matxismo eta honen ondorio lazgarriak justifikatuz, emakumeok pairatzen dugun desberdintasuna betikotuz.

Hedabideek, iritzi sortzaileak direnez, matxismoa sortu eta berau suspertzen dute. Bai Euskal Herri mailan, bai estatu mailan hedabideek emakumeen eskubideak ez kaltetzeko legeria badago. Besteak beste Nafar gobernuak bereak dituen hedabideetako programazioan ez dela emakumeen irudiarekin iraingarriak diren irudi edo edukirik emango, edo emakumeenganako indarkeriaren testuinguru osatzen dituzten estereotipoak eta aurreiritziak areagotuko dituztenak. Era berean EAEn eskuduntza-esparrupean jarduerarik burutzen duen ezein hedabide sozialak ezingo du pertsonak, giza duintasunean, mendeko edo nagusi bezala azaldu sexuaren arabera, ezta objektu sexualak balira. Ezta emakumeenganako indarkeria justifikatu, ezereztatu edo bultzatuko dituzten edukiak plazaratu.

ESK eta **Steilas**-ek, hainbat hedabideetan emandako eduki matxistak hamaika aldiz salatu dituzte, baita ere publizitate-kanpaina pribatu eta publikoetan emandako eduki matxistak.

Jendartean isuritako eduki matxista hauek jendartea orbantzen dute, gaizki hezitzen dute eta jarrera atzerakoienak finkatzen dituzte. **Eduki matxisten**

hedatzeak emakumeenganako indarkeria eragiten du. Hedabideak emakumeenganako indarkeriaren sortzaile eta mantentzailetzat seinalatzen ditugun bezala, administrazio publikoen erantzukizunari hel egiten diogu geldotasunean kokatu baitira, nahiz eta horretarako legeak izan, isuri matxistak onartuz.

Isuri matxisten ezabapena oso eraginkorra litzateke **emakumeenganako indarkeriari aurrea hartzeko**. Legea ezarri eta emakumeak mendeko egoeran plazaratzen dituzten edukiak desagertarazi behar dira, eta hedabideek gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko konpromisoa gauza dezatela, eta hone-la testuinguru hauetan aurkitzen dituzten alibi eta justifikazioen ondorioz gora egiten duten tratu txarren egile eta erasotzaile-haztegiarekin amaitu.

Zalantzarik gabe, genero indarkeriaren erazte-erantzako bideak prebentzioa, bedintasunean heziketa, tratu txarren egileei babesik emango ez dieten jendar-teen sorrera, lege eta boteredun bitartekoen ezartzea izan behar ditu, guzti hau eraldaketa sozial batean gauza dadin. **Steilas** eta **ESK**-k praktika horien aurkako borrokari eutsiko diogu, orban sozial hau posible egin duten praktika horien aurka, eta honetarako isuri matxistak salatzen jarraituko dugu eta animatu nahi zaituztegu gauza bera egitera.

Salaketak EAEn



Salaketak Nafarroan

